

ARRANTZALE ERRI

Kantaurri itxas ertzean
Mendi lirainez gordea
Ibai ta ibarrez betea
Euskeldun lur-aldea
Toki paregabea
Oberik ez da munduan.

Kumeak segurtatzeko
Aske bizi dan xoriak
Erneak dauzka begiak
Kabi nai gutziak
Oatzeko tokiak
Bear ditu pausatzeke
Mundu ontan bizitzeko
Euskoa orla zebillen
Ta inor gertatu baiño len
Tokia aukera zuen
Geroztik gera emen
Giza libreok izateko.

Goseak ez iltzekotan
Ikasi zuten artzaintzan
Aldi berean arrantzan
Kantaurriko baratzan
Beste biderik etzan
Arraikia jatekotan

Asma zuten tresna ederrik
Atzemateko legatza
Ixurrezko amu-latza
Lokarri aberatsa
Berexiz zaldi isatsa
Naiz baden orain oberik

GOAZEN ITXASORA

Jéiki, jeiki! mariñelak
Guazen oro itxasora
Uartzean euzki ederra
Laster agertzera doa
Goiz ñabarra, urdin-ubela
Gorri-gorrituko da.

Goazen, goazen itxastarrak!
Dei egin du patroyak
Atzar gaiten, jaiki bizi
Utzi maĩndire ta oyak
Itxasotik zeruraino
Egiteko otoyak.

Ariñ, ariñ! oldar biziz
Gure indarrez treñera
Ezkifaya ta ontziya
Alkar ongi ibiltzen gera
Jauna lagun, arrantzakin
Biurtuko kaiera.

Kendu, kendu! bidetikan
Olatu eta auiñak
Aize-iparrak utzi nai du
Itxas bare berdiña
Guk errex atzemateko
Bear degun txardiña

Ernai, ernai! i, gaztetxo
Argitu itzak begiak
Urrunean bai aldiran
Multsoan egaztiak
Zantzu ori aski degu
An izango arriak.

Entzun, entzun! lema zaina
Urrunago jun gabe
Txardiñ edo beste zerbait
Emen bertan ba daude
Argi-uera bizi-bizia
Ona begien pare.

Bete, betel! treñerua
Au dek arrai ballara!
Txopa dena betea ta
Gañezka antoparak
Ontzikoak irri-parrez
Dabiltz arat'onara.

TXAKURRAREN PARTIA

Gu gazte giñadela
Txalupa guziak
Zakurtxo bat oi zuten
Ontzi barrenian
Begi-erne, abilla
Etzan, zaunkaria
Iges zijoañ arraia
Arrapatzallea.

Seme, esango dizut
Nola gertatzen zan
Puñittutako arraia
Suelto... batzutan
Legatzak, ospal iges...
Txakurra, jausten zan
Ta bet-betan arraia
Artzen zun ortzetan

Lana orren saria
Zakurren partia
Deitzen genion guziok
Ongi merezia!
Maitea, maitea zan
Zakur eiztarria
Txalupa betetzen zun
Anima gabiak...

Unea etorri da
Zuri kontatzeko
Zer nolako txakurra
Zan gure «Txuriko»
Auin izugarriak
Etzun izutuko
Arraia utzi baiño
Lenago itoko.

Goiz itsusi batean
Ez naiz ez aztuko
Bere lana beteaz
Jauzi zan «Txuriko»
Baga aundi artean
Eiza...! ez utziko!
Legatz aundi batekin
Ito zan betiko.

TOSTARTEKOAREN ESKARIA

Osto igarra legez aidean ainara
Mendebaletik dator aize-burundara
Odei beltz, euditsua ta trumoi-ikara
Egin zazu, patroya, etxera muara
Emen segitzekotan danok galdu gara.

Ain da aundiya itxasoa, eta ain itsusiya
Gure barkua, berriz, zearo txikiya
Gainean dadukagu embata larriya
Estimutan dadukat oraindik biziya
Danok itto baiño len artzazu neurriya.

Entzun, arren, nagusi, nere arrazoya
Auiñak gallentzean zertako sasoya
Runboa alda ezazu orain da garaya
Zergatik izan ola orren zerekoya
Kanposantuan nai dut iltzean koroya.

Aurra egiteko du Antton'ek andria
Jenaro zarrak, berriz, pamili aundia
Txo-txo gaztearen gain alargun gaztia
Zu ere zureataz oroitu zaitia
Nik ezin antzi baitut maiteno neria.

ERRIAN

Mariñel zaarrak
Jokoa utzita
Biotz negarrak
Oi lakarrak
Mendean artuta
Kaiera dira urbiltzen
Bare aldirako
Ontzi kondarrak
Asirik gertutzen.

Ezkon berria
Andre gaztia
Kaiean...
Ara ta onara
Negarrez dabil

Bost andere
Iru amona
Eta aunitz mutil
Itxasoruntz
Kaiean... umil

Andre gaztia
Ezkon berria
Ara ta onara
Kaiean
Negarrez zurbil

—Atzo alako denbora onal
Nork uste bear zuan?
Usteak, ... uste
Zaspi emazte

—Atzo alako denbora onal
Ustea, beti ustel
Ikusi dezute.

ONDORENAK

Eriotz trixte batek
Ematen dit gaya
Bizitz ori kantatzen
Bear dut nik saya.

Arrantzale gazte bat
Miñez zan gelditu
Arrezkero gaixoak
Naiko lan baditu.

Senarra sendatzeko
Mediku onenak
Emazteak ekarri
Alperrikan denak.

Gogua bortxatuta
Au ta ura jan zazu
Biotzeko nerea
On egingo dizu.

Galdu arte inork ere
Bearreko laguna
Ez dugu estimatzen
Gure osasuna.

—Andre biotzekua,
Neriak egin du
Nola bear dituzu
Guziak mantendu.

Etzazu, emakume,
Ez egin negarrik
Betirako ez una
Gero arte bakarrik.

Entzun ezazu, seme,
Zu zera zarrena
Aurrerakoan zera
Aita bigarrena.

Arnasa estu-estu
Larri, ai biotza
Estulak ito nai du
Zer izerdi otza!

Gorputza ilik dago
Ai, ango negarrak!
Zer utsa uzten duen
Aita ta senarrak.

ALARGUNAREN NEGARRA

Nere gogoa egan dijoa
Alargunaren albora
Aitarik gabe gelditu diran
Ume txikien ondora.

Ama gaixoa, zoro antzean
Begira izar lekura
—Nere umien aita genuna
Iges jun zaigu zerura.

—Nere buruak ez du zentzurik
Zu itto ziñan ezkerro,
Zure itzala billaka nabill!
Goiz guziz eta gauero,
Aitatxo nun da? Galdezka dabil
Txikiena eguneró,
Nik etorriko zerala esan
Etzera etorko gaugerero.

—Patroyak oyu egin zunean
Ura loaren goxua
Azkar esnatuz pikzor altxatu
Ziñan nere senartxua.
Nork esango zun izanikan zu
Bulartsu ta osasuntsua
Azkenekoa izango zala
Erdi lotako muxua

Zure emaztea naizen aldetik
Dizut zin-zinez eskatzen
Zauden lekuan saiatu zaiten
Gauza au neri irixten
Len baiño len ni lur ontatik
Zuregana eramaten
Zu gabe nere biziak ez du
Irauterikan pentsatzen.

AITONA BRONTZE

Terranoba partian
Arrantza izana
Lur-mundu guziari
Itzuli emana.
Legorrian une bat
Ezin egon zana
Ekaitz ta baga artean
Zeukan atsedana.

Mariñelen artean
Bazuen itzala
Areak esan guzia
Agindua zala...
Neurrian jarriko zun
Biur ta zitla
Biotz-aundi oneko
Genun alaz-ala.

Patroyetan onena
Len izandakoa
Belarritik zintzillik
Uztai urrezkoa.
Galtzairu-on moduzko
Gorputz sendokoa
Ez zenun artu naiko
Aren ostikoa

Ba, orrelako gizona
Zer dan gure izateal
Legorreko ebaki alu batek
Uts, ezer ez batek
Eraman zuan.

ITXASOAN

«Itxasoan laiño dago
Baionako barraraino,
Nik zu zaitut maitiango
Arraitxoak ura baiño».

Itxas-Aita, ur alorra
Ama Lurra'ren senarra,
Bizi-iturri illezkorra
Gure poz eta negarra.

Ondarribi, itxas erri
Lamiaren amets kabi,
Mariñelen bizi-toki
Maitietan maitagarri.